**AGINDUA, MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILBURUARENA, MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, 6/2022 Legea) helburutzat dauka xedapen orokorrak egiteko prozedura, besteak beste Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorretan aplikatzeko.

6/2022 Legearen 12.1 artikuluak ezartzen du xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela xedapen orokorrak egiteko prozedura. Agindu horren edukiari dagokionez, kontuan hartu behar da arau horren 13.1 artikuluan ezarritakoa.

Aurreko hori betez, agindu honen xedea da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretua egiteko prozeduraren hasiera erabakitzea.

**Dekretu-proiektuaren helburua eta xedea, eta zenbateraino den bideragarria legez eta materiaz.**

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa

**ORDEN DE LA CONSEJERA DE MOVILIDAD SOSTENIBLE, POR LA QUE SE INICIA EL PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DEL DECRETO POR EL QUE SE ESTABLECE LA ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL DEL DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE.**

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante, LPEDCG) tiene como objeto el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general que se aplicará a, entre otras, las disposiciones de carácter general que elaboren el Gobierno Vasco y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 12.1 de la LPEDCG determina que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobra la que versan. Respecto al contenido de la citada orden, debe tenerse en consideración lo dispuesto en el artículo 13.1 de la citada norma.

En cumplimiento de lo anterior, el objeto de la presente orden es acordar el inicio del procedimiento para la elaboración del Decreto de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

**Objeto y finalidad del proyecto de decreto y viabilidad jurídica y material.**

En cumplimiento de lo establecido en la disposición final primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T8FFA-KC50
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** SUSANA GARCIA CHUECA | 2026/07/28 14:27:00

betez (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena), 2024ko azaroaren 29an indarrean jarri zen 382/2024 Dekretua, azaroaren 19koa, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. Dekretu horren huts-zuzenketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 237. zenbakian, 2024ko abenduaren 5ean.

Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, el 29 de noviembre de 2024 entró en vigor el Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, cuya corrección de errores fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, nº 237, de 5 de diciembre de 2024.

Aurretik, 2024ko apirilaren 19an, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

Anteriormente, el 19 de abril de 2024, se publicó tanto en el Boletín Oficial del País Vasco como en el Boletín Oficial del Estado, el Real Decreto 368/2024, de 9 de abril, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco de traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones de la Administración del Estado correspondientes a los servicios de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías.

Bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eskualdatzearen ondorioz hartutako betebeharrak betetzeko, 2024ko azaroaren 28an, Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Renfe Viajeros SME SA Estatuko Merkataritza Sozietatearen arteko akordioa sinatu zen, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoari buruzko dekretua EHAAn argitaratu zen egunean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra zerbitzu horiek emateko kontratuan Estatuko Administrazio Orokorraren kontratu-posizioan subrogatzeko.

A fin de dar cumplimiento a las obligaciones contraídas con motivo de la transferencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco de los servicios de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías, se firmó, el 28 de noviembre de 2024, en fecha coincidente con la publicación en el BOPV del Decreto de estructura orgánica del Departamento de Movilidad Sostenible, el acuerdo entre la Administración General del Estado, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Sociedad Mercantil Estatal Renfe Viajeros, SME, S.A. para la subrogación de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la posición contractual de la Administración General del Estado en el contrato para la prestación de dichos servicios.

Subrogazio-akordio hori 2025eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

La entrada en vigor del referido acuerdo de subrogación se produjo el 1 de enero de 2025.

Transferitutako zerbitzuen gaineko eskumena Mugikortasun Jasangarriaren Sailari atxikita geratu zen.

La competencia sobre los servicios transferidos quedó adscrita al Departamento de Movilidad Sostenible.

Honako hauek osatzen zuten transferitutako zerbitzua:

El servicio transferido lo componían originalmente:

Bilboko zabalera iberikoko aldiriko nukleoa:
• C-1 (Bilbo Abando – Barakaldo – Santurtzi)
• C-2 (Bilbo Abando – Barakaldo - Muskiz)
• C-3 (Bilbo Abando - Urduña)

El núcleo de cercanías de ancho ibérico de Bilbao:

- C-1 (Bilbao Abando – Barakaldo -Santurtzi)
- C-2 (Bilbao Abando – Barakaldo - Muskiz)
- C-3 (Bilbao Abando - Orduña)

Donostiako zabalera iberikoko aldiriko nukleoa:

• C-1 Irun - Donostia – Tolosa - Brinkola.

El núcleo de cercanías de ancho ibérico de Donostia - San Sebastián:

- C-1 Irún - San Sebastián – Tolosa - Brinkola.

Bilboko zabalera metrikoko aldiriko nukleoa:

• C-4f Bilbo – Balmaseda.

El núcleo de cercanías de ancho métrico de Bilbao:

- C-4f Bilbao – Balmaseda.

Ondoren, 2025eko maiatzaren 30ean, Arabako Lautadako hurbileko trenbide-zerbitzua hobetu zen: 137 zirkulazio astean Altsasuaren (Nafarroan) eta Miranda de Ebroren (Burgosen) artean, eta geltokiak egin ziren Araian, Agurainen, Alegría-Dulantzin, Gasteizen, Langraiz Okan, Argantzunen eta Manzanosen.

Posteriormente, con fecha 30 de mayo de 2025, se implantó una mejora del servicio ferroviario de cercanía de la Llanada Alavesa; 137 circulaciones semanales entre Altsasua, en Navarra, y Miranda de Ebro, en Burgos, con paradas en Araia, Agurain, Alegría-Dulantzi, Vitoria-Gasteiz, Nanclares de la Oca, La Puebla de Arganzón y Manzanos.

Berrikiago, 2026ko maiatzaren 6an, C5 aldiriko trenbide-linea berria jarri zen martxan, Karrantzako eta Arangurengo geltokien artean (Zalla), Enkarterrin (Bizkaia).

Más recientemente, el 6 de mayo de 2026, se puso en servicio la nueva línea ferroviaria C5 de Cercanías entre las estaciones de Karrantza y Aranguren (Zalla), en Enkarterri (Bizkaia).

Bestalde, Euskadiko etorkizuneko trenbide-sareak aukera emango du hirigune nagusiak lotuko dituen Intercity

Por otra parte, la futura red ferroviaria de Euskadi permitirá articular un servicio Intercity que conectará los principales

zerbitzu bat antolatzeko, trenbide-merkatu liberalizatu batekin bateragarria izango den diseinu batekin. Zerbitzu hori ezartzeak garraio publikoko ordutegi eta zerbitzuen koordinazio-, azterketa- eta elkarreragingarritasun-lanak ekarriko ditu berekin.

Europako trenbide-merkatua liberalizatzeko testuinguruan jarriko da abian, eta horrek lehia eta zerbitzu publikoko kontratuen lizitazioa sustatzen ditu, nahiz eta zuzeneko esleipena ahalbidetzen duten salbuespen jakin batzuei eusten dien.

Egoera horretan, beharrezkoa da etorkizuneko zerbitzuen kudeaketa- eta kontratazio-eredua aldez aurretik definitzea, hainbat alderdi aztertuz, hala nola adjudikazio-prozedura, kontratuen izaera juridikoa eta Administrazioaren baliabide propioek Euskadin trenbide-zerbitzuak emateko bete ahal izango duten zeregina, bereziki "Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA". (ET-FFVV).

Horrez gain, 2026ko martxoaren 27an, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osatutako aldebiko lankidetza-batzordeak Euskadiko eta Estatuko Aireportuen arteko Aldebiko Organoa sortzeari buruzko akordioa hartu zuen. Organo horrek aireportu-plangintzaren eta -lankidetzaren arloko eginkizunak hartuko ditu bere gain, zerbitzuaren konektibitatearen eta kalitatearen arloan, ingurumen-politiken eremuan, bai eta aireportuetan eragina duten gainerako politika publikoen eremuan ere.

Horregatik guztiagatik, eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua indarrean jarri ondoren hartutako erantzukizunen tamaina kontuan hartuta, eta operatibitate-arrazoiengatik,

núcleos urbanos, con un diseño compatible con un mercado ferroviario liberalizado, cuya implantación conllevará labores de coordinación, análisis e interoperabilidad de horarios y servicios de transporte público de envergadura.

Su puesta en marcha se desarrollará en un contexto de liberalización del mercado ferroviario europeo, que fomenta la competencia y la licitación de los contratos de servicio público, aunque mantiene determinadas excepciones que permiten la adjudicación directa.

En este escenario, resulta necesario definir con antelación el modelo de gestión y contratación de los futuros servicios, analizando aspectos como el procedimiento de adjudicación, la naturaleza jurídica de los contratos y el papel que podrán desempeñar medios propios de la Administración en la prestación de los servicios ferroviarios en Euskadi, especialmente “Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.” (ET-FFVV).

Adicionalmente, el 27 de marzo de 2026, la Comisión bilateral de Cooperación Administración del Estado- Comunidad Autónoma del País Vasco, adoptó el acuerdo relativo a la creación del Órgano Bilateral Aeroportuario Euskadi-Estado, órgano que asume funciones en materia de planificación y cooperación aeroportuaria, en materia de conectividad y calidad del servicio, en el ámbito de políticas ambientales, así como en el ámbito del resto de políticas públicas con impacto aeroportuario.

Por todo ello, y, en atención a la envergadura de las responsabilidades adquiridas tras la entrada en vigor del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible y por razones

komenigarritzat jotzen da egungo Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza bi zuzendaritzatan banatzea: Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza eta Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza.

Hori dela eta, azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua aldatu behar da, gaur egun Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritzari esleitutako eginkizunak zuzendaritza horren eta Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza berriaren artean banatzeko, eta zuzendaritza horretan bildutako eginkizun berriak definitzeko.

Ondorioz, beharrezkoa da dagokion arau-aldaketa izapidetzen hastea.

Proiektaturiko erregelamendua guztiz justifikatuta dago Autonomia Estatutuaren 10.2 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dizkion “Autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua” eskumenak kontuan izanda.

Administrazioen auto antolaketarako ahala administrazioen oinarrizko printzipioa da, administrazio publikoen antolamenduaren eta funtzionamenduaren araubide juridikoaren oinarriak errespetatuz (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua), zeinak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean zehazten baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, lehendakariari dagokio administrazio autonomikoa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldatu edo ezabatzea, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 8.c artikuluan, eta hala jaso da 18/2024 Dekretuan.

de operatividad, se considera conveniente dividir la actual Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible en dos direcciones: Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible y Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte.

Ello determina la necesidad de modificar el citado Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, a fin de redistribuir las funciones actualmente asignadas a la Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible entre la misma y la nueva Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte, y de definir las nuevas funciones encuadradas en esta última.

En consecuencia, resulta necesario iniciar la tramitación de la correspondiente modificación normativa.

El reglamento proyectado se encuentra plenamente justificado por las competencias de “organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno” que el artículo 10.2 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La potestad de autoorganización de las Administraciones es un principio básico de éstas, con el respeto de las bases estatales del régimen jurídico de la organización y funcionamiento de las administraciones públicas del artículo 149.1.18 de la Constitución, concretadas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, la creación, modificación y supresión de órganos, unidades administrativas o entidades que constituyen la administración autonómica corresponde al Lehendakari, tal y como preceptúa el art. 8.c de la Ley 7/1981 de Gobierno, y así se ha recogido en el Decreto 18/2024.

**Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak.**

Proiektu hau indarrean jartzen denean, aldatu egingo da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua.

**Repercusiones en el ordenamiento jurídico.**

La entrada en vigor de este proyecto supondrá la modificación del vigente Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

**Aurrekontuen gaineko ondorioak.**

Espedientean memoria ekonomiko bat txertatu beharko da, eta proiektatutako arauak aurrekontuetan izan ditzakeen ondorioak zehaztu beharko dira memoria horretan, hauetan ezarritakoa betez: batetik, 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena (42. eta 43. artikuluak), eta bestetik, 6/2022 Legea (13. eta 15. artikuluak).

Dekretu-proiektuak aurrekontu-eragina du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan, Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza zatitzearen ondorioz Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza berria sortu denez, gastua handitzea baitakar.

Bestalde, LPZren aldaketa ere badakar, lege-xedapenak betetzeko eta antolaketa-egitura Sailaren behar funtzionaletara egokitzeko, bai eta aurrekontu-egituren berrantolaketa berri bat ere, proposatutako sail-egitura berrira egokitzeko.

**Incidencia en los presupuestos.**

Se incorporará al expediente una memoria económica en la que se expresará la posible incidencia de la norma en los presupuestos, en cumplimiento de las exigencias establecidas en los artículos 42 y 43 del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y de lo dispuesto en los artículos 13 y 15 de la LPEDCG.

El Proyecto de Decreto tiene incidencia presupuestaria para la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, puesto que el mismo implica un incremento de gasto al crearse la nueva Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte como consecuencia de la división de la Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible.

Por otro lado, implica también una modificación de la RPT en cumplimiento de las disposiciones legales y con el objetivo de adaptar la estructura organizativa a las necesidades funcionales del departamento y una nueva reordenación de estructuras presupuestarias para ajustarlas a la nueva estructura departamental propuesta.

**Egin behar diren izapideak eta txostenak.**

6/2022 Legeak 13.1 artikuluan

**Trámites e informes procedentes.**

De conformidad con lo dispuesto en el

xedatutakoarekin bat, prozedura hasteko aginduak jaso beharko ditu gai horri lotuta bidezko iritzitako izapide eta txostenak zeintzuk diren. Azaldutakoa dela bide, hauek behar dira:

apartado 13.1 de la LPEDCG, la orden de inicio debe señalar los trámites e informes que se estimen procedentes por razón de la materia. Por lo anterior, se estiman necesarios los siguientes:

1. Dekretu-proiektuaren idazkerari dagokionez, 6/2022 Legean ezarritakoa bete behar da. Prozedura hasteko agindu honek ezarritakoa oinarritzat hartuta idatziko da, hain zuzen, kontuan hartuz zer aukera diren onenak lortu nahi diren helburuen arabera eta ezarri nahi den araudia egokia eta legezkoa dela bermatzeko kontsulten emaitzaren arabera.

1. En cuanto a la redacción del proyecto de decreto, ha de estarse a lo dispuesto en la LPEDCG. Su redacción se efectuará atendiendo al contenido de esta orden de inicio, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

6/2022 Legearen 14.5 artikuluari jarraikiz, testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, bertsio linguistikoen lanketan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio fasean izapidetu baino lehen.

Conforme al artículo 14.5 de la LPEDCG, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi beharko da.

Asimismo, el texto debe ser redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.

10/1982 Legeak 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko, sistema hau erabiliko da: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko du euskarara arautestuaren gaztelaniazko bertsioa.

El sistema de redacción que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, será la traducción por los servicios de traducción IZO de la versión en castellano del texto normativo.

Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikuluaren arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta

Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la LPEDCG, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y

baliokideak direla egiaztatzeko.

equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública.

2. Proiektatutako arauak, funtsean, antolamendu-xedea duenez, ez da beharrezko jotzen idazketa egin aurreko kontsulta publikoaren izapidea burutzea. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluak eta 6/2022 Legearen 11. artikuluak jasotzen dute izapide hori, eta arauak eragin ditzakeen subjektuen edo ordezkaritza handiena duten erakundeen iritzia jasotzea da kontsulta horren xedea.

2. Dado el carácter esencialmente organizativo de la norma proyectada, no se estima necesario efectuar el trámite de consulta pública previa a su redacción, previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante LPAC), así como en el artículo 11 de la LPEDCG, que tiene por objeto recabar la opinión de los sujetos y sus organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

3. Prozedura hasteko agindua Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak egingo du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, bat etorrita 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoarekin eta Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran hartutako Erabakiaren seigarren apartatuarekin (Arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera).

3. La orden de inicio de la consejera de Movilidad Sostenible será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la LPEDCG y el apartado sexto del Acuerdo de Consejo de Gobierno, adoptado en su sesión celebrada en fecha 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

4. Nahitaez egingo da arau-eraginaren azterketari buruzko memoria, eta bertan jasoko edo berretsiko da, prozedura hasteko aginduari dagokionez, proposamena egiten duen organoaren

4. Se elaborará, con carácter preceptivo, una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la orden de inicio cualquier extremo que pueda ser relevante a criterio

iritziz esanguratsua izan daitekeen edozein alderdi; nolanahi ere, 6/2022 Legeak 15.3 artikuluan xedatzen duen edukia jaso beharko du. Memoria horrek dekretu-proiektuaren analisi juridikoa ere jasoko du, saileko Aholkularitza Juridikoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluak xedatutakoaren arabera.

del órgano proponente y, en todo caso, el contenido al que hace referencia el apartado 3 del artículo 15 de la LPEDCG. Esta memoria incluirá el análisis jurídico del proyecto de decreto por la Asesoría Jurídica departamental, conforme a lo establecido en el artículo 42.1.a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

5. Agiri horiek egin ondoren, dekretu proiektuari aldez aurreko onarpena emango zaio, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren agindu bidez, eta dagokion testu artikulatua erantsiko zaio.

5. Elaborados los citados documentos, se someterá el proyecto de decreto a la aprobación previa, mediante orden de la consejera de Movilidad Sostenible que llevará adjunto el texto articulado correspondiente.

Halaber, aldez aurreko onarpen-agindua eta arau-proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko dira, bat etorrita 6/2022 Legearen 16.3 artikuluan xedatutakoarekin eta Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran hartutako Erabakiaren seigarren apartatuarekin (Arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera).

Asimismo, la orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de acuerdo con el artículo 16.3 de la LPEDCG y el apartado sexto del Acuerdo de Consejo de Gobierno, adoptado en su sesión celebrada en fecha 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

6. Proiektuak ez du entzunaldi eta informazio publikoaren izapiderik bete behar, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra antolatzeko xedapen bat baita, 6/2022 Legearen 17.4 artikuluaren arabera.

6. Se exceptúa el trámite de audiencia e información pública por tratarse de una disposición de carácter organizativo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo preceptuado en el artículo 17.4 de la LPEDCG.

7. Ez da beharrezkoa EAEko gainerako administrazio publikoei kontsulta egitea, antolamendu-izaerako araua delako eta arauaren aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra delako, haren administrazio instituzionalarekin eta haren mendeko eta

7. No es necesario consultar al resto de Administraciones Públicas Vascas, ya que se trata de una norma de carácter organizativo cuyo ámbito de aplicación de la norma es la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con su respectiva

hari atxikitako gainerako ente instrumentalekin batera.

administración institucional y los demás entes instrumentales dependientes y adscritos a la misma.

8. Indarrean den arau-xedapenak egiteko prozedurarekin bat, eta 6/2022 Legearen 16. artikuluaren arabera, bidezkotzat jotzen dira arau bidez sartzen diren edo ezinbestekoak ez diren txostenak, hain zuzen, ondoren adieraziko direnak, bai eta Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsultak ere, aldi berean eta hilabeteko epean egingo baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan xedapenaren testua argitaratzen den egunetik zenbatuta.

8. Con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas, se estima que pueden ser procedentes de conformidad con el artículo 16 de la LPEDCG, los siguientes informes introducidos por vía reglamentaria o que no tengan un carácter esencial, y las siguientes consultas a los propios departamentos de la Administración General, que se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa:

a. Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzak egindako txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak 12.1 n) artikuluan xedatutakoa betez.

a. Informe de la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, tal y como dispone el artículo 12.1 n) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

b. Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena, bat etorriz Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak 17.c. artikuluan ezartzen duenarekin, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.a) artikuluari dagokionez.

b. Informe de la Dirección de Empleo Público de conformidad con lo expresado en el artículo 17.c. del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en relación con el artículo 18.2.a) de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

c. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, kontuan hartuta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak 14.2.k) artikuluan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeari

c. Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en virtud de lo determinado en el artículo 14.2. k) del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica

buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1 artikuluan zehaztutakoa.

y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera.

d. Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .1 artikuluaren arabera. Artikulu horrek ezartzen duenez, Aholku Batzordeak txostena egin behar die kontratazio publikoaren arloko xedapen orokorren proiektuei edo eremu horretan eragiten dutenei, baldin eta Gobernu Kontseiluaren edo Gobernu Kontseiluko sailburuen eskumena bada proiektu horiek onartzea.

d. Informe de la Junta Asesora de Contratación Pública, de conformidad con el artículo 27.a).1 del Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que impone que los proyectos de disposiciones de carácter general en materia de contratación pública o que incidan en dicho ámbito, cuya aprobación sea competencia del Consejo de Gobierno o de los consejeros y consejeras del mismo, deben de ser sometidos a informe de la citada Junta Asesora.

9. Dekretu-proiektu hau antolaketarako denez, ez da generoaren araberako eraginari buruzko txostenik egin behar, hala ezartzen baita Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onespena eman zien «Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideen» lehenengo jarraibideko 2.b).i letran. Hala ere, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea jakinaren gainean jarriko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 20. artikuluan ezarritakoa betez, lege horretan xedatutakoa zuzen aplikatzen dela egiaztatze aldera (1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

9. De conformidad a la directriz primera 2.b).i) de las “Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres”, aprobadas por Consejo de Gobierno de 21 de agosto de 2012, se exime la realización preceptiva del informe de impacto de género para el presente proyecto de decreto dada su naturaleza organizativa. No obstante, se dará traslado a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, en aplicación del artículo 20 de la Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, a efectos de verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en citada ley.

10. Enpresen gaineko eraginari buruzko txostena: Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legeak 6 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia

10. Informe de impacto en la empresa: El artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco establece en que, con

Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzeari, abian jartzeari eta haien funtzionamenduari gaineko eraginari buruz.

carácter previo a cualquier nueva regulación o norma promovida por la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Gobierno Vasco, realizará un informe de evaluación de impacto en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas.

11. Ez da inolako izapiderik egin behar izango Europar Batasunean.

11. No es necesario realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

12. 6/2022 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, nahitaez eskatu behar dira funtsezko txosten hauek:

12. Conforme al artículo 19 de la LPEDCG, deberán requerirse los siguientes informes preceptivos de carácter esencial:

a. Legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena, hauen indarrez egina: Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 22. artikulua; Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikulua, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikulua.

a. Informe preceptivo de legalidad en virtud de lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General; en el artículo 5.1.a) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco; y en el artículo 11.2.a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

b. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, hauetan ezarritakoaren arabera egina: 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikulua eta hurrengoak (2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) eta 464/1995 Dekretuaren 41. artikulua eta hurrengoak (464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena).

b. Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico según lo establecido en el artículo 25 y siguientes del Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el artículo 41 y siguientes del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

13. Gardentasuna. Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea EAEko araudiaren atarian argitaratu beharko da, bat etorriz Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak

13. Transparencia: Toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto debe ser publicada en el portal de la normativa vasca Legegunea, en consonancia con lo dispuesto en la Ley 3/2026, de 14 de

ezartzen duenarekin.

14. Arau-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat landuko da, bertan azalduz aurrekariak, egin diren izapideak eta haien emaitzak, eta egindako txostenetako oharpen eta iradokizunetara eta, bereziki, nahitaezko txostenetan jasotakoetara egokitzeko proiektuaren testuan egindako aldaketak. Hori guztia, 6/2022 Legeak 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

15. Gobernu Kontseiluak proiektua onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira igorriko du, bat etorrita Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluarekin eta 6/2022 Legearen 27. artikuluarekin.

Horregatik, eta azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

**Bigarrena.-** Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Zerbitzu Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeko organo arduradun. Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez egingo da, Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakian xedatutakoari jarraikiz (erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredu berria onartzen da).

mayo, de Transparencia de Euskadi.

14. Una vez finalizada la tramitación del proyecto de norma, y con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento, reseñando los antecedentes, trámites practicados y su resultado y las modificaciones realizadas en el texto del proyecto para adecuarlo a las observaciones y sugerencias de los diferentes informes evacuados, y de manera especial a las contenidas en los de carácter preceptivo. Lo anterior, conforme a lo establecido en el artículo 24 de la LPEDCG.

15. Aprobación del proyecto por el Consejo de Gobierno y su posterior remisión al Boletín Oficial del País Vasco, conforme al artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y al artículo 27 de la LPEDCG.

Por todo ello, y en base a todos los antecedentes expresados,

**RESUELVO:**

**Primero.-** Iniciar el procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

**Segundo.-** Designar a la Dirección de Servicios del Departamento de Movilidad Sostenible como órgano encargado de la tramitación del procedimiento antes citado, que se realizará a través de la aplicación informática “Tramitagune”, atendiendo a lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el nuevo Modelo Básico de Tramitación del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General.

**Hirugarrena.-** Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

**Laugarrena.-** Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan argitaratzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoa betez.

**Tercero.-** Efectuar los estudios, informes y consultas que sean necesarios para la elaboración de la norma y para garantizar su acierto y legalidad.

**Cuarto.-** Publicar esta orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de su firma electrónica

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua
La consejera de Movilidad Sostenible
SUSANA GARCÍA CHUECA